

EKAINA 2023

B1. Molekula kobalente hauek kontuan hartuz: BeCl_2 , BCl_3 eta SiCl_4 .


- Irudika itzazu haien Lewis-en egiturak. (0,25)
- Arrazoitu zein izango den molekulen geometria eta polaritatea balentzia-geruzako elektroi bikoteen aldarapenaren teoria (BGEBA) erabiliz. (0,75)
- F_2 eta HCl substantzietarako, adierazi arrazoituz zer motakoak izango diren molekulen arteko indarrak kasu bakoitzean eta bietako zeinek edukiko duen irakite-tenperaturarik baxuena. (1,00)

UZTAILA 2023

A4. Ondorengo molekula kobalenteen geometria justifika ezazu balentzia-geruzako elektroi bikoteen aldarapen teoria (BGEBA) erabiliz.

- Berilio dibromuroa. (0,50)
- Aluminio trikloruroa. (0,50)
- Silizio tetrakloruroa. (0,50)
- Azaldu, arrazoituz, zer indar motak gainditu behar diren ondorengo prozesuak burutzeko: a) Izotza urtu, b) Bromoa irakin (Br_2), c) Sodio kloruroa urtu. (1,00)

C3. Sufre dioxidoaren (SO_2) Lewis-en egitura hauetatik:



- Aukeratu zuzena dena, eta arrazoitu zergatik diren okerrak besteak. (0,50)
- Deskribatu SO_2 molekularen geometria balentzia-geruzako elektroi bikoteen aldarapen teoria (BGEBA) erabiliz. (0,50)
- Arrazoitu ea SO_2 molekula polarra den ala ez. (0,50)